

# Mintzakide: 2009-2010 ikasturtea PRENTSA TXOSTENA



## 6. ikasturtez badator!!

Prentsa harremanak:  
Eneko Anduaga  
948 96 05 16 / 664 49 65 09  
[mintzakide@topagunea.com](mailto:mintzakide@topagunea.com)



## Zer da Mintzakide?

Mintzakide euskaraz txukun hitz egiten duten eta mintzamina hobetu nahi duten hiztunak elkarrekin jartzen dituen programa da. Partaideak euskaraz mintzatzeko elkartzeko dira. Hiruzpalau partaideko taldeak osatzen dira, talde hauek maiztasun jakin batekin elkartzeko direlarik, gehienetan astean behin ordu batez. Asteko jardueraz gain saio osagarriak eskaintzen dira hilabetean behin, Mintzakide egitasmoan parte hartzen duten taldeetako lagunak elkar ezagutu dezaten.

Mintzakide 2004-2005 ikasturtean sortu zen Iruñerriko eta Tafalla aldeko 16 urtetik gorako euskaldun guztientzat zuzendua. Azaroan hasiko den ikasturtea seigarrena izanen da.

### Ohiko saioak:

Mintzakidek antolatzen dituen mintza-taldeak astero ordu batez elkartzeko dira euskaraz hitz egiteko. Taldea autonomoa da zer egin nahi duen erabakitzeko, kafetxo bat hartu, paseoan ibili... Talde guztietan euskaraz txukun hitz egiten duen pertsona bat edo bi egonen dira, eta taldeko beste bi edo hiru pertsonak beren euskara maila hobetu nahi dutenak izanen dira.

### Saio osagarriak:

Mintzakide egitasmoan, ohiko saioez gain, hilabetean behin bestelako saioak antolatzen dira, osagarriak. Saio hauek anitzak izaten dira: afariak, museoetara bisitaldiak, mendi irteerak eta beste hainbat. Saio hauek Mintzakiden parte hartzen duten pertsonentzat eta oro har, Iruñerriko eta Tafallako euskaldun guztientzat zabalik daude.



Argazkian Gasteizko Mintza Egunean parte hartu zuten Iruñerriko eta Sakanako mintzakideak (2009ko ekainaren 6an)



## Zertarako Mintzakide?

Mintzakide bezalako mintzapraktika programek erabilera bultzatzen dute euskal hiztunen artean, bai euskara maila hobetu nahi duten pertsonen artean, baita maila txukuna dutenen artean ere. Are gehiago, bi talde hauek harremanetan jartzen dituzte.

Programa hauen bitartez euskaltegiek, euskara elkarteek eta tokiko administrazioek elkarlanean aritzeko aukera paregabea dute.

Mintzapraktika egitasmoen helburuetako bat euskaldunon komunitatea zabaltzea da, euskarazko harreman sareak sortu eta hedatuz euskaldunon hizkuntza komunitatea zabaltzea, euskaraz aritzeko ditugun aukerak ugarituz.

## Datu batzuk:

2008-2009 ikasturtean 210 bat pertsonak parte hartu zuten egitasmoan. Mintzakideko partaideen %70ek beren euskara maila hobetu nahi zutenak ziren, portzentaje horretan euskaltegi-tako ikasleak eta ikasle ohiak, ikastoletako ikasle ohiak, edo aspaldi ikasitako euskara maila berreskuratu nahi zuten pertsonak zeuden. Gainerako %30ak aldiz, maila txukuna zeukan, multzo honetan ordea, txikitatik euskara ikasi zutenak, ikastoletako ikasle ohiak edo euskaltegi-tan ikas-prozesua bukatu zutenak aurki genitzakeen.

Honez gain, adin tarte guztietako jendea biltzen da Mintzakide egitasmoak sortzen dituen taldeetan.

Ikasturte bukaeran egindako ebaluaketatik hainbat datu adierazgarri ondorioztatzen dira. Mintzakide egitasmoan parte hartzea esperientzia aberasgarria suertatzen da, partaideen %59rentzako esperientzia ona izan zen eta %38rentzat ederra. Partaideek izena ematerakoan zituzten helburuak ia %80an bete dira.

Datu hauek argi islatzen dute partaideen asebetetze maila altua dela egitasmoarekiko.

## Mintzakideren berri izateko:

Bi hilabetetik behin Mintzakide Buletina plazaratzen da. Buletin honetan Mintzakide egitasmoak eskaintzen dituen jardueraz gain, berriak eta agenda bat argitaratzen dira.

Buletinaz gain, blog bat lantzen da ([www.blogak.com/mintzakide](http://www.blogak.com/mintzakide)), astean behin edo bitan informazio berria jartzen delarik.

Mintzakide egitasmoak antolatutako hainbat saioen argazkiak helbide honetan ikus daitezke, argazkiez gain ikasturte honetako kartel eta eskuorria ere izanen dituzue eskura:

<http://www.flickr.com/photos/27127021@N06/>

Euskal Herrian dauden mintzapraktika programen inguruko inforazio gehiago [www.mintzapraktika.org](http://www.mintzapraktika.org) webgunean aurki daiteke.



### 2009-2010 ikasturtea:

Azaroan hasiko den ikasturtean aurrekoetan hasitako lanaren jarraipena egingen da, ikasturte hasieran hainbat aurkezpen hitzaldi emango dira Mintzakide babesten duten herri guztietan, hainbat euskaltegian eta zenbait ikastetxetan.

Aurreko ikasturtean hasitako Gurasolaguna egitasmoa indartu nahi da, egitasmo honen bitartez guraso taldeekin mintza-taldeak sortuko dira ikastetxeetan.

Honez gain, hilabetean behin Saio Osagarriak antolatzen jarraituko dugu eta hauetako batzuk Euskara Elkarteekin, Udaletako Euskara Zerbitzuekin edo euskaltegiekin elkarlanean.

Zabalpenari dagokionez, bi hilabetetan behin argitaratzen den Mintzakide Buletina plazaratzen jarraituko da eta astean behin edo bitan berrituko da bloga ([www.blogak.com/mintzakide](http://www.blogak.com/mintzakide)).

Aurreko ikasturtean bezala Mintzakide Mendi Taldeak, hainbat txango antolatuko ditu inguruko tontorretan barna, egutegia aurrerago aurkeztuko da.



### Zeintzuk dira sustatzaileak?

Sustatzaileak:

Nafarroako Topagunea, Karrikaluze, Karrikiri, Zaldiko Maldiko, Euskaldunon Biltoki eta Zorroka euskara elkarteak, IKA, AEK, Zubiarte euskaltegia, Iruñeko Hizkuntz Eskola Ofiziala, Bai & by, eta Euskalerrria Irratia.

Babesleak:

Antsoain, Aranguren, Atarrabia, Berriobeiti, Berriozar, Burlata, Iruñea, Uharte, Zizur Nagusia, Tafalla, Orkoien- Oltzako Zendea- Etxauri- Bidaurretako udalak, Kukuxumusu eta Eusko Jaurlaritza.



**Izena emateko epea:** Urriaren 1etik urriaren 26ra.

**Ikasturte hasiera:** Azaroaren 9tik aurrera

**Izena emateko tokiak:**

- **Antsoain:** Antsoaingo Euskararen patronatua
- **Aranguren:** Udaleko Euskara Zerbitzua.
- **Atarrabia:** Karrikaluze elkarte
- **Berriobeiti:** Udaleko Euskara Zerbitzua
- **Berriozar:** Udaleko Euskara Zerbitzua
- **Burlata:** Zaldualde Euskaltegia
- **Iruñea:** Karrikiri elkarte eta Arturo Campion, Iruñezar, eta Irrintzi euskaltegiak
- **Tafalla:** Udaleko Euskara Zerbitzua
- **Uharte:** Zubiarte euskaltegia
- **Zizur:** Udaleko Euskara Zerbitzua
- **Orkoien, Oltzako Zendea, Etxauri, Bidaurreta:** Udaleko Euskara Zerbitzua